

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIREONTZIKO ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK.	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0959		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontziko lan osagarriak.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aireontzi-kanpoaldeko mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	40
	Aireontzi-barrualdeko mantentze-lan osagarriak.		30
	Aeronautikako segurtasuna eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa. (Zeharkakoa)		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1315\_1 AIREONTZIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zerbitzu-lanak behar dituzten aireontzi-eremuak deskribatzea eta haien sistema eta osagaiak identifikatzea.

E1.1 Zerbitzu-lanak behar dituzten sistema mekanikoak deskribatzea.

E1.2 Zerbitzu-lanak behar dituzten sistema elektrikoak deskribatzea.

E1.3 Zerbitzu-lanak behar dituzten potentzia-instalazioaren eta helizearen zatiak deskribatzea.

A2: Kanpoaldeko garbiketa teknika eta desizozteko lanak egitea, ezarritako protokoloen arabera.

E1.1 Kanpoaldeko garbiketa teknika egiteko prozedurak eta horretarako hartu beharreko neurriak identifikatzea.

E1.2 Aireontzia desizozteko prozedurak eta horretarako hartu beharreko neurriak deskribatzea.

A3: Aireontziek behar dituen zerbitzu-lanak egitea, horretarako makinak eta ekipoak trebetasunez erabiliz eta ezarritako prozedurak betez.

E1.1 Energia pneumatikoko eta/edo elektrikoko kanpo-laguntzaz edo halakorik gabe aireontziaren motorrak abiarazteko laguntza emateko prozedurak deskribatzea.

E1.2 Sistema hidraulikoen eta pneumatikoen zerbitzu-prozedurak eta erabili beharreko fluido-motak deskribatzea.

E1.3 Hondakin-uren eta edateko uraren sistema kargatzeko eta garbitzeko metodoak deskribatzea.

E1.4 Elementu hidraulikoen (motelgailuak, metagailuak eta tanga hidraulikoa) eta elementu pneumatikoen (gurpilak eta aireontziaren oxigeno-sistema) kantidad- eta presio-mailak deskribatzea.

E1.5 Aire girotuko ekipoen fluido-maila egiaztatzea.

E1.6 Suteak itzaltzeko botilak deskargatzeko diskoen egoera egiaztatzea.

E1.7 Pneumatikoen azaletan eta balazta-paketeen higadura- eta kalte-egoera egiaztatzea.

E1.8 Elementu mugikorrek koipeztatze gailu-motak eta haiek lubrifikatze eta haiei koipea eta olioak emateko metodoak deskribatzea.

##### Edukiak

##### 1. Aireontzietako zerbitzu-eremuen kokalekua jakitea.

- Zerbitzu-lan mekanikoak.
  - Lurreratze-trenen sistema eta elementu nagusiak.
  - Erregaia kargatzeko eta drainatzeko eremua eta elementuak.
  - Motelgailuak, metagailuak, balaztak eta gurpilak.
  - Fluido hidraulikoa kargatzeko eremua eta elementuak.
  - Oxigenoa kargatzeko eremua.
  - Ateak eta arrapalak.
  - Pitot-estatikoko sistemaren kanpoko hodiak.
- Zerbitzu-lan elektrikoak.
  - Larrialdietako argiztapen-sistema.
  - Interfonia-sistema.
  - Lurreratze-argiak, errodadura-argiak, egoera-argiak, formazio-argiak, hegalen ikuskapen-argiak eta abar.

- Tren-sistemaren konektore elektrikoak eta hegazkinaren hegaldi-adierazleak.
- Hegazkinaren kanpoaldetik arrapalak eta atak irekitzeko eta ixteko konektoreak.
- Potentzia-instalazioko zerbitzu-lanak.
  - Aireontzien motorretan zerbitzu-lanak behar dituzten elementuak.
  - Aireontzien helizeetan zerbitzu-lanak behar dituzten elementuak.
  - Motorraren olio-mailaren adierazlea eta olio kargatzeko ataka.
  - Erregai drainatua biltzeko elementua.
  - Aireontzien kapot finkoa eta desmuntagarria.

## 2. Zerbitzu-lanen prozedurak.

- Motorrak abiarazteko laguntza (seinale-egilea, energia-hornidura, altxagarriak eta motor-gasen zaintza).
- Fluido hidrauliko eta pneumatikoa betetzeko lanak. Fluido-motak.
- Lan-mahai hidraulikoak eta orga pneumatikoak erabiltzea.
- Edateko ura eta hondakin-urak kargatzeko eta deskargatzeko lanak eta haiek garbitzekoak.
- Metagailuen, motelgailuen, gurpilen, aire girotuaren, su-itxalgailuen (disko testiguak), oxigenoaren eta antzekoen mailaren eta presioaren egiaztapena.
- Pneumatiko-azalen eta balazta-paketeen higaduraren egiaztapena.
- Hegazkinaren koipeztatze orokorra (koipeztatzaile-, koipe- eta olio-motak).
- Aireontziaren kanpoaldeko garbiketa teknikoak.
- Aireontzia desizozteko lanak.
- Dokumentazio teknikoak, tresneria eta erremintak.
- Sistemaren arreta-neurri espezifikokoak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak